
PRENTSA OHARRA

BILBAOARTEK GIN RO ARTISTAREN 'EL OTRO LADO DEL JARDÍN' ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Ekoizpen propioko erakusketa hau udal zentroak 2022an egingo duen bigarren banakako proposamena da, eta martxoaren 25ean egingo du itxiera ekitaldia

(Bilbon, 2022ko otsailaren 28an). BilbaoArte Fundazioak, Bilboko Udaleko ekoizpen artistikorako zentroak, 2021ean bekaduna izandako Gin Ro artista mexikarraren «*El otro lado del jardín*» erakusketaren ateak ireki ditu. Oraingo honetan, erakusketa aretoak hiru zatitan banatutako instalazio batekin beteko da, argazkia, serigrafia eta zeramika euskarri desberdinetan konbinatuz, kolonialismoaren ikuspegitik Espainiaren eta Latinoamerikaren arteko harremana aztertzeko.

Gin Roren lanaren gai nagusia identitatearen aldatzea da, hainbat prozesu sozial, ekonomiko eta historikotan oinarrituta, hala nola kolonialtasunean eta globalizazioan. Artista mexikarrak ildo horretan lan egiten jarraitu du bere egoitzan zehar, eta erakusketa honen ia zati material guztia BilbaoArteko instalazioetan ekoiztu du, guneko giza taldearen laguntzarekin, Saray Pérez artistarekin eta Federico Pallanido editorearekin lankidetzan.

«*El otro lado del jardín*» erakusketan, Gin Ro-k hiru prozesu artistiko batuz, Latinoamerikaren eta Espainiaren arteko harremana behatzen du, *bestearekiko* imajinario kolektiboaren bidez.

Urazurrutia Aretoan aurkezten den lehen prozesuak “*No lugar*” du izena, eta artistaren subjektibotasunetik abiatuta garatzen da, estatuan migratzaile latinoamerikarra den aldetik. Atal honetako pieza nagusia *stop motion* formatuko bideo bat da.

Bigarren prozesua, “*Esquejes*”, erakusketa-aretoan presentzia handiena duena da, eta izenburu bereko proiektuaren parte da. Espainiatik Abya Yalara (Amerika) egindako lehen espedizio zientifikoaren artxiboa gurutzatzen du, latinoamerikar jatorriko migratzaileen eta Latinoamerikatik joandako landareen argazkiekin.

Europak, lorategi botanikoetarako flora metodo zientifikoaren arabera erakusteak, kontserbatzeak, sailkatzeak eta erauzteak, espezie, herri eta sistema biziak katalogatzeko eta berrizendatzeko eskubidea esleitzea ekarri zuen, Yurdeskis Espinosa filosofo karibearrak aipatzen duen bezala. Proiektu horrekin, migratzaileen autoordezkaritza horizontala eta kolaboratiboa ezartzea da Gin Roren asmoa.

Hain zuzen ere, erakusketa honen izenburua “*Esquejes*”-ek proposatzen duen hausnarketatik dator, narratiba nagusien irakurketa alternatiboa iradokitzen saiatuz.

Ikusi ahal izango den azken prozesua “*Mal de Ojo*” da, Abya Yala emakumeetan zentratutako instalazio bat, aurreko proiektuko espedizioen artxibo beretik abiatuta.

Amaiera gisa, martxoaren 25ean erakusketaren katalogoa aurkeztuko du artistak, Federico Pallanidorekin batera argitaratu eta diseinatu. Testu nagusia Alba Rodríguez Díazek, arrazakeriaren aurkako idazle feministak, sinatu du. Katalogoa berez funtzionatzen duen argitalpen-pieza gisa pentsatuta dago, eta doan emango zaie ekitaldira bertaritzen direnei.

ARTISTARI BURUZ

Gin Ro –Georgina Rodríguez Ayala– (Mexiko Hiria, 1986). Diseinatzaile industrial (UAM-X). 2014tik, argazkigintzaren azterketa teknikoan eta kontzeptuarekin sakondu du. 2017an, ohorezko aipamena jaso zuen Roberto Villagraz Began (EFTI, Madril), eta horrekin egin zuen EFTIren Argazkigintza Garaikideko eta Belaunaldiko Proiektu Pertsonaletako Masterra (2017-2018). Gaur egun, Arte Bisualetako Maisutza ikasten ari da, Argazkigintzako espezialitatearekin, UNAMen (Mexiko).

Gaur egun Bilbon bizi da eta bertan egiten du lan, argazkigintzarekin beste komunikabide batzuetatik esperimendatzen ari delarik, hala nola mugimenduan dagoen iruditik eta instalaziotik.

Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

BILBAOARTE PRESENTA LA EXPOSICIÓN ‘EL OTRO LADO DEL JARDÍN’ DE LA ARTISTA GIN RO

Esta muestra de producción propia es la segunda propuesta individual del centro municipal en 2022, que celebrará su clausura el 25 de marzo

(Bilbao, 28 de febrero de 2022). La Fundación BilbaoArte, centro de producción del Ayuntamiento de Bilbao, abre las puertas de la exposición «*El otro lado del jardín*» de la artista mexicana Gin Ro, becada durante 2021. En esta ocasión, la sala de exposiciones acogerá una instalación dividida en tres partes que combinan fotografía en diversos soportes, serigrafía y cerámica, para observar la relación entre España y Latinoamérica en términos de colonialismo.

El tema central del trabajo de Gin Ro es la modificación de la identidad a partir de diferentes procesos sociales, económicos e históricos como la colonialidad y la globalización. La artista mexicana continúa trabajando en esta línea durante su residencia y produce casi toda la parte material de esta muestra en las instalaciones de BilbaoArte, con el apoyo del equipo humano y colaborando con la artista Saray Pérez y el editor Federico Pallanido.

En «*El otro lado del jardín*» Gin Ro une tres procesos artísticos que tienen como hilo conductor observar la relación entre Latinoamérica y España, concretamente a través del imaginario colectivo sobre el *otro/a*.

El primer proceso que se presenta en la Sala Urazurrutia se titula “*No lugar*”, y está desarrollado desde la subjetividad de la artista como migrante latinoamericana en el estado. La pieza principal de este apartado es un vídeo en *stop motion*.

El segundo proceso, “*Esquejes*”, es el que mayor peso tiene en la sala de exposiciones y pertenece al proyecto del mismo título. Cruza archivo de las primeras expediciones científicas de España a Abya Yala (América) con fotografías de personas migrantes de origen latinoamericano y plantas que se han desplazado desde Latinoamérica y que pueden encontrarse en el Jardín Botánico de Madrid.

La exhibición, conservación, clasificación y extracción de la flora destinada a jardines botánicos de acuerdo al método científico, supuso que Europa se asignara el derecho a catalogar y renombrar especies, pueblos y sistemas vivos, como menciona la filósofa caribeña Yurdeskis Espinosa. Con este proyecto, la intención de Gin Ro era establecer una auto-representación horizontal y colaborativa de los migrantes.

Es precisamente de la reflexión que propone “Esquejes” que nace título de la presente exposición, tratando de sugerir una lectura alternativa a las narrativas predominantes.

El último proceso que se podrá ver es “*Mal de Ojo*”, que consiste en una instalación centrada en las mujeres Abya Yala, a partir del mismo archivo de las expediciones del proyecto anterior.

A modo de clausura, el próximo 25 de marzo la artista presentará el catálogo de la exposición, editado y diseñado en colaboración con Federico Pallanido, cuyo texto principal está firmado por Alba Rodríguez Díaz, escritora feminista antirracista. Este catálogo, pensado como una pieza editorial que funcione por sí misma, será entregado gratuitamente a los asistentes del evento.

SOBRE LA ARTISTA

Gin Ro –Georgina Rodríguez Ayala– (Ciudad de México, 1986). Diseñadora Industrial (UAM-X). Desde el 2014, ha profundizado en el estudio técnico y conceptual del medio fotográfico. En el 2017, recibe mención de honor en la Beca Roberto Villagraz en EFTI en Madrid, con la cual realizó el Máster de Fotografía Contemporánea y de Proyectos Personales de la Generación 2017-2018 de EFTI. Actualmente cursa la Maestría de Artes Visuales con especialidad en Fotografía en la UNAM (México).

Actualmente, vive y trabaja en Bilbao, donde se encuentra experimentando con la fotografía desde otros medios como la imagen en movimiento y la instalación.

Informazio gehiago / Más información



Fundación BilbaoArte Fundazioa

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus